

I. XEDAPEN OROKORRAK

ESTATUKO BURUZAGITZA

12267 7/2016 Errege Lege Dekretua, abenduaren 23koa, Gizarte-bonuaren kostua finantzatzeko mekanismoa eta energia elektrikoaren kontsumitzaile kalteberak babesteko beste neurri batzuk arautzen dituen.

I

Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2009ko uztailaren 13ko 2009/72 (EE) Zuzentarauak, elektrizitatearen barne-merkaturako arau erkideei buruzkoak, zeinaren bidez indargabetzen baita 2003/54 (EE) Zuzentaria, azpimarratu egiten du garrantzitsua dela estatu kideek behar diren neurriak hartzea elektrizitatearen barne-merkatuaren arloan kontsumitzaile kalteberak babesteko. Hortaz, beren-beregi adierazten du berariazko neurriak ezarri ahal izango direla elektrizitatearen fakturen ordainketaren inguruan, edota neurri orokorrak gizarte-segurantzaren sistemaren barruan.

Espanian, gizarte-bonua da kontsumitzaileen kolektibo hori babesteko neurri nagusia. Gizarte-bonu deritza erreferentziako merkaturatzaileek kontsumitzaile kalteberei aplikatu behar dieten deskontuari kontsumitzaileok hura baliatzeko baldintzak betetzen dituztenean; alegia, Ministroen Kontseiluaren errege-dekretu bidez zehaztutako ezaugarri sozialak eta erosteko ahalmena dituztenean. Hori dela-eta, familiaren *per capita* errentaren adierazle bat erreferentziatzen hartuko duen atalasea definitzea aurreikusten da Sektore Elektroko buruzko abenduaren 26ko 24/2013 Legearen 45. artikuluko 2. zenbakian.

Gizarte-bonua bera aplikatu behar duten merkaturatzaileei dakarkien kostuaren finantzaketa, hasieratik, Espanian zerbitzu publikoko betebeharrak gisa konfiguratu izan da, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2009ko uztailaren 13ko 2009/72 (EE) Zuzentariaren xedatutakoari jarraituz.

Abenduaren 26ko 24/2013 Legearen 45.4 artikuluan jatorrizko testuan jasotako konfigurazioan, gizarte-bonuaren kostua finantzatzeko zerbitzu publikoko betebeharrak ezarri zitzaizkien energia elektrikoa aldi berean ekoizten, banatzen eta merkaturatzen dituzten entitateei. Azaroaren 21eko 968/2014 Errege Dekretuak, gizarte-bonuari dagokionez finantzatzeko diren kopuruak banatzeko ehunekoak ezartzeko metodologia garatzen eta ehunekoak kalkulatzeko oinarriak ezartzen dituenak, abenduaren 26ko 24/2013 Legearen araututako-garapena jaso zuen.

Auzitegi Goreneko hirugarren salak, hainbat epaitan, baietsi egin ditu azaroaren 21eko 968/2014 Errege Dekretuaren aurka jarritako errekurtsoak, eta aplikaezin deklaratu du abenduaren 26ko 24/2013 Legearen 45.4 artikuluan gizarte-bonua finantzatzeko ezarritako araubidea; izan ere, salaren iritziak, araubide hori bateraezina da Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2009ko uztailaren 13ko 2009/72 (EE) Zuzentariarekin, elektrizitatearen barne-merkaturako arau erkideei buruzkoarekin, zeinak 2003/54 (EE) Zuzentaria indargabetzen baitu. Horrenbestez, aplikaezin eta deusez deklaratu ditu baita azaroaren 21eko 968/2014 Errege Dekretuaren 2. eta 3. artikulua ere, 24/2013 Legearen 45.4 artikulua garatzen dutenak, eta araubide horren zioz egindako ekarpenak berreskuratzeko eskubidea aitortu die errekurtsogileei.

Deklaratu den aplikaezintasun horrek, hala, gizarte-bonua finantzatzeko beste modu bat arautu beharra sortu du. Hori lehenbailehen egin behar da, epaiak ez diolako eragin gizarte-bonuari berari, kontsumitzaile txikiak borondatezko prezioaren deskontua den aldetik, eta, beraz, oraindik ere gizarte-bonua aplikatzen ari delako eskubidea duten kontsumitzaile kalteberen fakturazioan. Xede horrekin, abenduaren 26ko 24/2013 Legearen 45. artikuluan aldaketa jaso da errege lege-dekretu honetan, gizarte-bonuaren finantzaketarako beste mekanismo bat ezartzeko, egin beharreko ekarpenak nortzuek egin behar dituzten zehazteko eta bakoitzaren ekarpenaren ehunekoaren kalkulurako irizpidea zehazteko.

Gizarte-bonua finantzatzeko hemen onartzen den mekanismo horrek oinarri hauek ditu: batetik, Espainiako Konstituzioaren 31.3 artikulua, ondare-prestazio publikoak lege bidez ezar daitezten ahalmena ematen duena, eta, bestetik, goian aipatu dugun Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2009ko uztailaren 13ko 2009/72 (EE) Zuzentarauaren 3.2 artikulua, zerbitzu publikoko betebeharez eta bezeroen babesaz diharduena, bertan xedatzen baita, Tratatuak gaiari buruz dakartzan xedapenak eta batez ere 86. artikulua erabat errespetatuz, estatu kideek elektrizitate-enpresei, interes ekonomiko orokorraren izenean, zerbitzu publikoko betebeharrak ezarri ahal izango dizkietela, barruan hartuta segurtasuna —tartean, horniduraren segurtasuna—, horniduraren erregulartasuna, kalitatea eta prezioa, eta, halaber, ingurumenaren babesa —tartean, efizientzia energetikoa, iturri berriztagarrietako energia eta klimaren babesa—. Gainera, zerbitzu publikoko betebeharrak argi zehaztu behar direla eranstean, gardenak, bereizkeriarik gabekoak eta kontrolatzeko modukoak izan behar direla, eta Europar Batasuneko elektrizitate-enpresei baldintza-berdintasuna bermatu behar dietela kontsumitzaile nazionalengana iritsi ahal izateko.

Honako arauketa honetan, lehendik badiren mekanismoak eta horiek berrikusi dituzten ebazpen judizialean hartutako erabakiak hartu dira abiapuntutzat, eta arestian aipatutako zuzentarauaren 3.2 artikulutik ondorioztatzen diren eskakizunen araberrako finantzaketa-sistema eratzea izan da helburua.

Hala, bada, zerbitzu publikoko betebeharrak gisa, gizarte-bonuaren kostua euren gain hartzeko agintzen zaie energia elektrikoa merkaturatzen diharduten sozietate taldeetako enpresei edo inongo sozietate taldeetan egon gabe jarduerari hori egiten duten sozietateei. Bistan denez, gizarte-bonuaren mekanismoak lotura estua du merkaturatze-jarduerarekin. Izan ere, zuzenean kontsumitzaile jakin batzuei dagokien mekanismoa da, eta, esan bezala, kontsumitzaileok prezio txikiagoa ordaintzen dute kontsumitutako elektrizitatearen truke, merkaturatzaileak fakturan aplikatzen dien deskontuaren bitartez. Guztiz zentzuzkoa da, beraz, neurri horrek dakarren kostua jasanaraztea, hain zuzen, neurriarekin estu lotuta dagoen jarduerari hori egiten duten subjektuei.

Sozietate taldeetako kide diren enpresa merkaturatzaileen kasuan, taldeko sozietate nagusiari ezartzen zaio betebeharrak hori, arrazoi teknikoengatik, kudeaketa hobea lortze aldera. Ildo horretan, kontuan hartu behar da sozietate nagusi horietako asko (ez ordea taldeetako sozietate merkaturatzaileak) sektore elektrikoko likidazioen sistemako subjektuak direla dagoeneko eta horrek erraztu egingo duela haien ekarpenen kudeaketa. Gaur egun Merkaturaren eta Lehiaren Batzorde Nazionalak kudeatzen du sistema hori, likidazioen ardura duen organo gisa. Nahiko sarri gertatzen da, bestalde, sozietate talde batek energia elektrikoa merkaturatzen duten enpresa bat baino gehiago izatea, normalean kontsumitzaileen tipologia edo segmentu desberdinak lantzen dituztenak edota zein bere eskualdean kokatuta daudenak. Horrenbestez, betebeharrak taldeko sozietate nagusiari ezarri gero, gizarte-bonua finantzatzeko ekarpena modu bateratuan eta agregatuan kudea daiteke, eta, beraz, modu eraginkorragoan.

Dena dela, alhora utzi gabe finantzatu beharreko neurriak zuzeneko lotura duela merkaturatze-jarduerarekin, gorago esan bezala, eta horrek berez justifikatzen duela betebeharrak ezartzea hain zuzen ere jarduerari horretan diharduten sozietate guztiei, badira arrazoi gehiago betebeharrak hori ez hedatzeko sektore elektrikoko beste subjektu batzuek, bestelako jardueretan dihardutenengana, hala nola ekoizpenean, garraioan edo banaketan.

Izan ere, sareetako jardueretan —hots, garraioan eta banaketan— dabilzanak, euren ezaugarriengatik, berezko monopolioak dira, eta euren jarduerari, funtsean, sare elektrikoak garatu eta mantentzea da, bai eta kudeaketa ere. Horregatik, ordainketa erregulatuaren araubidea dute, zeinak egindako inbertsioen ordainketa finantzarioa eta operazio- eta mantentze-kosten ordainketa estaltzen baititu. Ordainketa hori sektore elektrikoaren kostuetarako abenduaren 26ko 24/2013 Legeak ezarritako partidetan dago jasota, eta garraio- eta banaketa-sareak erabiltzeagatik kontsumitzaile eta ekoizleek eta, halaber, Europar Batasunetik kanpoko herrialdeetara energia esportatzen duten agenteek ordaintzen dituzten sarbide-sarien kargura egin behar zaio aurre. Beraz, subjektu horiei

gizarte-bonua finantzatzeko betebeharra ezarriko balitzaie, alde batera utzita haiek ez dutela zuzeneko loturarik aztergai dugun neurriaren xedearekin, onartu beharko litzateke gizarte-bonua haien jardueraren beste kostu bat dela, eta, ondorioz, esleitzen zaien ordainketa erregulatuan kostu hori erantsi beharko litzateke, eta gero kontsumitzaileei jasanarazi (gizarte-bonua baliatzen duten kontsumitzaile kalteberei ere bai) goian aipatutako sarbide-sarien bitartez. Horrela, zapuztu egingo litzateke neurriaren bidez lortu nahi den xedea.

Antzera gertatuko litzateke energia elektrikoa ordainketa-araubide berezian ekoizten duten instalazioekin, hau da, energia-iturri berriztagarriak, kogenerazioa eta hondakinak erabiliz energia elektrikoa araubide saridunean ekoizten duten horiekin. Instalazio horien ordainketa ere sektore elektrikoaren diru-sarreraren kontura estali behar diren sektore elektrikoaren beraren kostuetako bat da. Izan ere, subjektu horiei gizarte-bonuaren banaketan parte hartzeko betebeharra ezarriko balitzaie (eta, berriro ere, albo batera utzita ez dutela zuzeneko loturarik ez neurriarekin ez neurriaren onuradunekin), horretarako ordaindu beharko luketen zenbatekoa kostutzat onartu beharko litzateke eragiketagarri ordaintzen zaienean, eta, ondorioz, kontsumitzaileei jasanaraziko litzateke kostu hori, sarbide-sarien bitartez. Eta, kolektibo horrek kostua finantzatzeko aukera baztertu behar bada, era berean baztertu behar da ordainketa-araubide berezirik ez duten beste generazio-instalazio batzuek finantzaketan parte hartzeko aukera ere, tratu-desberdintasun nabarmena sortuko litzatekeelako generazio-jarduera beraren barruan.

Horregatik, eta kontuan izanik, gainera, oraingo erregulazioaren helburu nagusia gizarte-bonuaren kostu guztiak ahalik eta eraginkortasun handienarekin berreskuratzea dela, honako errege lege-dekretu honetan jasotako aukera, hau da, energia elektrikoa merkaturatzeko jarduerari lotutako subjektuek finantzatzea gizarte-bonua, egokiena da itxuraz, eta bat dator gizarte-bonuaren izaerarekin eta helburuarekin. Dena dela, betebeharrak ez da iraunkorra, eta bera lau urtean behin gutxienez berrikusteko asmoa dago, sektore elektrikoaren egoerari egokitzeko.

Horretaz gainera, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2009ko uztailaren 13ko 2009/72 (EE) Zuzentarauak dioenez, zerbitzu publikoko betebeharrak argi zehaztu behar dira, eta gardenak, bereizkeriarik gabekoak eta kontrolatzeko modukoak izan behar dira. Eskakizun horiei erantzunez, mantendu egin dira abenduaren 26ko 24/2013 Legearen 45. artikulua horri buruz dakartzan aurreikuspenak. Hala, kostuaren banaketan enpresa bakoitzari edo enpresa taldeko sozietate nagusi bakoitzari egokituko zaion zatia, banaketa hori bidezkoa izan dadin, berak hornitzen dituen bezeroen kopuruaren arabera kalkulaturako ehuneko baten arabera izango da.

Gizarte-bonuaren kostua, beraz, merkaturatze-jardueran diharduten subjektuen merkatu-kuoten arabera banatuko da, eta subjektuok hornitzen dituzten bezeroen kopuruaren bidez kalkulaturako da merkatu-kuota hori. Alde horretatik, ez da ahaztu behar 2009ko uztailaren 13ko 2009/72 (EE) Zuzentarauak ere bezeroen edo horniduren kopurua hartzen duela erreferentzia gisa, 100.000 bezero baino gutxiago dituzten enpresa banatzaileak zenbait betebeharratik salbuesten dituzten; eta erreferentziako merkaturatzaileak izendatzeko parametro erabakigarria ere bada, martxoaren 28ko 216/2014 Errege Dekretuaren arabera, zeinak energia elektrikoaren kontsumitzaile txikientzako borondatezko prezioak kalkulatzeko metodologia eta energia elektrikoa kontratatze-araubide juridikoa ezartzen baititu.

Era berean, bermatu nahi da kostuaren banaketa etengabe egokituko zaiela sektorearen unean uneko inguruabarrei, jendeak ezagutu ahal izango duela eta kontrolatu ahal izango dela, eta horretarako xedatzen da Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalak urtero kalkulaturako dituela aplikatu beharreko banaketa-ehunekoak, Energia, Turismo eta Agenda Digitaleko ministroak onar ditzan, eta kalkulu horretarako erabilitako informazioa jendaurrean jarriko duela.

II

Aurrekoaz gainera, errege lege-dekretu honek sakon jorratzen ditu energia elektrikoaren kontsumitzaile kalteberak babesteko neurriak, 2009ko uztailaren 13ko 2009/72 (EE) Zuzentarauan aipatutakoak.

Lehenengo eta behin, aldatu egiten dira goian aipatutako legearen 45. artikulua 1. zenbakiko bigarren paragrafoa eta 3. zenbakia. Helburua zera da: argi uztea, hurrenez hurren, batetik, kontsumitzaile kalteberen definizioak kalteberen kolektibo desberdinak hartu ahal izango dituela barruan, euren ezaugarri sozialei, erosteko ahalmenari eta ezartzen diren errenta-atalaseei erreparatuta, 45. artikulua beraren 2. zenbakiak aurreikusten duen bezala; bestetik, eta aurrekoaren ondorioz, gizarte-bonua aplikatzeko oinarritzat hartzen den balioa desberdina izan ahalko dela kontsumitzaile kalteberen artean ezartzen diren kategorien arabera, aurrerantzean ere azken baliabideko tarifa deituko zaiola eta horrelako bat baino gehiago egon ahalko direla.

Bigarrenik, kategoria berri bat sortzen da abenduaren 26ko 24/2013 Legearen 52. artikulua arabera funtsezkoak diren energia elektrikoaren horniduren zerrendan. Hala, funtsezko hornidurak izango dira kalteberatasun larria duten kontsumitzaileentzako hornidurak, kontsumitzaileok azken baliabideko tarifari atxikita badaude eta hornidura horiek direla-eta administrazio publiko eskudunetako gizarte-zerbitzuen laguntza jasotzen ari badira, euren errentarengatik gizartetik baztertuta geratzeko arriskua dutelako. Hornidura horiek pertsona fisikoetara mugatuko dira, betiere euren ohiko etxebizitzan, eta adierazitako baldintzak betetzen direla frogatu beharko da, aipatutako administrazio publikoetako gizarte-zerbitzuek egindako agiriaren bitartez.

Hirugarrenik, definizio horren osagarri, beste aldaketa batzuk egiten dira abenduaren 26ko 24/2013 Legearen 52. artikuluan: kalteberatasun larria duten kontsumitzaileen kolektiboa salbuetsi egiten da hornidura eteteari buruzko aurreikuspenetatik, bai eta funtsezkotzat jotzen diren zerbitzuekin loturiko hornidurak dituzten eta berankortasun-egoeran dauden bezeroei enpresa banatzaileek ordainketak afektatzeko edo errekarquak aplikatzeko aukeratik ere.

Halaber, funtsezko horniduren hartzaileen kolektibo berri hori energia elektriko hornitzeak ekar dezakeen kostuaren zati bati aurre egitea zerbitzu publikoko betebeharrak berri gisa konfiguratzeko da, horrela xedatzen baitu goian aipatutako 2009ko uztailaren 13ko 2009/72 (EE) Zuzentarauak, elektrizitatearen barne-merkaturako arau erkideei buruzkoak, 2003/54 (EE) Zuzentaria indargabetzen duenak. Arestian azaldu diren arazoengatik, gizarte-bonuaren kostua banatu behar duten subjektuek eurek hartuko dute euren gain betebeharrak hori, honako xedapen honek abenduaren 26ko 24/2013 Legearen 45. artikulua ematen dion testu berrian adierazten den moduan.

Kontzeptu horrengatik egin beharreko ekarpenak gizarte-bonuari dagozkion ekarpenetatik bereiziko dira, eta gehieneko zenbateko bat izango dute, Energia, Turismo eta Agenda Digitaleko ministroaren agindu bidez finkatu beharrekoa, alde aurretik Ekonomia Gaietarako Gobernuaren Ordezko Batzordeak hala erabakita. Ekarpen horiek partzialak edo finantzaketan laguntzekoak izango dira, osatu egingo baitituzte administrazio publiko eskudunek gizarte-bazterketaren arriskua dutenei hornidurak bermatzeko egiten dituzten ekarpenak.

Ekarpen horiek esleitzeko behar diren mekanismoak eta jarduketak erregelamendu bidez ezarriko dira.

Laugarrenik, gorago aipatutako 52. artikuluan bertan, ordaintzen ez dutenei hornidura eteteko epea lau hilabetera luzatzen da, erregelamendu bidez zehaztu beharreko kontsumitzaile kalteberentzat.

Lege honen aurreikuspen berriak aplikatzeko modua eta baldintzak erregelamendu bidez ezarriko dira. Prozedura horiek, gaur egun, batez ere abenduaren 1eko 1955/2000 Errege Dekretuan daude araututa. Dekretu horrek energia elektrikoaren instalazioak baimentzeko prozedurak eta energia elektrikoaren garraio-, banaketa-, merkaturatze- eta horniketa- jarduerak arautzen ditu.

Hala, bada, gorago aipatutako abenduaren 26ko 24/2013 Legearen 45.2 artikulua eta honako errege lege-dekretu honen 2. artikulua erekin bat etorritik, kontsumitzaile

kalteberen kategoriak definituko dira, tartean kalteberatasun larria dutenen kategorია, horrelako kontsumitzaileak hornitzea funtsezkotzat jotzen baita 52.4 artikuluko j) letran. Errenta-irizpideak erabiliko dira kategoría horiek definitzeko, baina aintzat hartuko dira etxe bakoitzeko pertsonen eta familiaren inguruabarrak; besteak beste, familia-unitateko kideen kopurua, eta adingaberen bat edo desgaitasuna duen pertsonaren bat egotea familiaren kargura. Horrez gain, babesaren eta gardentasunaren arloan, kontsumitzaile kalteberen kontratazioari dagokionez, hobekuntzak egingo dira energia elektrikoaren hornidura eteteko prozeduretan. Bereziki, hornidura eten aurretik jakinarazpen gehiago egin beharko dira, eta txikizkako bezeroei eskaintza komertzialen arteko konparazioa errazteko adierazleak ezarriko dira, finantza-arloan erabiltzen direnen antzekoak.

Bestalde, Gobernuari agintzen zaio hiru hilabeteko epean errege-dekretu bat onar dezala 1. artikuluan xedatutakoa garatzeko. Kontuan hartu behar da honako errege lege-dekretu honek arau-berrikuntza batzuk ekarri dituela –esate baterako, gizarte-bonuaren kostua nortzuek finantzatu behar duten zehaztea edo kalteberatasun larria duten kontsumitzaileentzako hornidura funtsezkotzat jotzea– eta ezinbestekoa dela ondoren errege-dekretu baten bidez arauak ezartzea kontsumitzaileerik kalteberenen babes eraginkorra bermatzeko.

Aurreikusten da, halaber, Gobernuak administrazio publiko eskudunekin elkarlanean jardungo duela Sektore Elektrikoari buruzko abenduaren 26ko 24/2013 Legearen 52.4.j) artikuluan aipatzen diren kontsumitzaileen hornidura-puntuen erregistro administratiboa abian jartzeko.

Azkenik, banaketa-ehunekoak ezartzeari buruzko aurreikuspenak erregelamendu bidez garatu arte, behin-behinean ezartzen dira gizarte-bonuaren kostua errege lege-dekretu honetan definitzen diren subjektuen artean banatzeko ehunekoak. Horretarako, kontuan hartu da subjektuei eta horien bezero kopuruei buruz eskura dagoen informazioa, Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalarena.

Azaldutako guztiagatik, behean onartzen diren neurriek bete egiten dute Konstituzioaren 86. artikulua eskakizuna: haien aparteko eta presazko beharra izatea. Jada azaldu dira aparteko eta presazko beharrian horren arrazoiak: kontsumitzaile kalteberenenak babestu behar direla eta ez dagoela gizarte-bonua finantzatzeko mekanismorik erreferentziako merkaturatzaileek euren gain hartzen duten kostua konpentsatzen duenik.

Espainiako Konstituzioaren 149. artikulua 1. zenbakiko 13. eta 25. paragrafoen babesean ematen da errege lege-dekretu hau, Estatuari eskumen eskusiboa esleitzen baitiote, hurrenez hurren, jardura ekonomikoaren plangintza orokorraren oinarriak eta koordinazioa ezartzeko eta meatzeen eta energiaren araubidearen oinarriak ezartzeko.

Horrenbestez, Energia, Turismo eta Agenda Digitaleko ministroak hala proposatuta, Estatu Kontseiluarekin bat etorri, eta aurretiaz Ministroen Kontseiluak 2016ko abenduaren 23ko bileran eztabaidatuta, honako hau

XEDATZEN DUT:

1. artikulua. *Sektore Elektrikoari buruzko abenduaren 26ko 24/2013 Legea aldatzea.*

Hona nola aldatzen den Sektore Elektrikoari buruzko abenduaren 26ko 24/2013 Legea:

Bat. Honela idatzita geratzen da 45. artikuluko 1. zenbakiko bigarren paragrafoa:

«Gobernuak zehaztuko ditu, erregelamendu bidez, kontsumitzaile kalteberen eta horien kategorien definizioa, bete behar dituzten betekizunak eta kolektibo horientzat hartu beharreko neurriak».

Bi. Honela idatzita geratzen da 45. artikuluko 3. zenbakia:

«3. Gizarte-bonuaren bitartez, kontsumitzaile txikientzako borondatezko prezioaren eta oinarrizko balio baten arteko aldea estaliko da. Oinarrizko balio hori desberdina izan ahalko da kontsumitzaile kalteberen artean ezartzen diren kategorien arabera, eta azken baliabideko tarifa deituko zaio. Erreferentziako

merkaturatzaileek oinarritzko balio hori aplikatuko dute berei atxikita dauden kontsumitzaileen fakturretan.

Energia, Turismo eta Agenda Digitaleko ministroak zehaztuko ditu azken baliabideko tarifak, aldez aurretik Ekonomia Gaietarako Gobernuaren Ordezko Batzordeak hala erabakita».

Hiru. Aldatu egiten da 45. artikuluko 4. zenbakia, eta honela idatzita geratzen da:

«4. Zerbitzu publikoko betebehartzat hartuko dira bai gizarte-bonua, bai lege honen 52.4.j) artikulua aplikagarri duten kontsumitzaileentzako energia elektrikoaren hornidura kofinantzatzeko kostuaren ordainketa, horrela xedatzen baitu Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2009ko uztailaren 13ko 2009/72 (EE) Zuzentarauak, elektrizitatearen barne-merkatuari buruzko arauari buruzkoak, 2003/54 (EE) Zuzentaria indargabetzen duenak.

Energia elektrikoa merkaturatzeko jardueran diharduten sozietate taldeetako enpresa nagusiek edo inongo sozietate taldetan egon gabe horretan diharduten sozietateek hartuko dute euren gain gizarte-bonua.

Sozietate edo sozietate talde horiek euren gain hartuko dute, halaber, 52.4.j) artikuluan aipatzen den kontsumitzaileentzako horniduraren kostua administrazio publiko eskudunekin batera finantzatzeko egin behar duten ekarpena. Energia, Turismo eta Agenda Digitaleko ministroaren agindu bidez ekarpen horren gehieneko zenbatekoa ezarriko da, Ekonomia Gaietarako Gobernuaren Ordezko Batzordeak aurretiaz hala erabakita.

Ekarpen horiek esleitzeko behar diren mekanismoak eta jarduketak erregelamendu bidez ezarriko dira.

Finantzatu beharreko zenbatekoen banaketa-ehunekoa, sozietate bakoitzarentzat edo sozietate talde bakoitzarentzat, berak energia elektrikoaren hornitzen dituen bezeroen kuotaren arabera kalkulatu da, bi gairen arteko erlazio gisa. Gai bat subjektu obligaziodunetako bakoitzaren bezeroen urteko batez besteko balioa izango da, eta bestea sozietate merkaturatzaile guztien bezeroen urteko batez besteko balioen batura izango da.

Energia elektrikoaren merkaturatzaile bat baino gehiago barruan dituzten sozietate taldeetan, energia elektrikoaren hornitutako bezeroen kuota kalkulatzeko, merkaturatzaile guztien banakako kuotak batu egingo dira.

Banaketa-ehuneko hori Merkaturaren eta Lehiaren Batzorde Nazionalak kalkulatu du, urtero, Gobernuak erregelamendu bidez ezartzen dituen prozeduraren eta baldintzen arabera. Horretarako, Merkaturaren eta Lehiaren Batzorde Nazionalak, urtero, bere webgunean argitaratu du kontuan hartutako aldiari dagokion informazioa –subjektuetako bakoitzak energia elektrikoaren hornitu dituen bezeroen urteko batez besteko balioa, alegia–, bai eta bere proposamenaren jaso dituen sozietateen edo sozietate taldeen zerrenda ere, eskuragarri dagoen azken urte osoko datuak oinarri harturik zehaztuta.

Urtero, erregelamenduz ezartzen den epean, Merkaturaren eta Lehiaren Batzorde Nazionalak proposamena igorriko dio Energia, Turismo eta Agenda Digitalaren Ministerioari, energia elektrikoa merkaturatzeko jardueran diharduten sozietate taldeetako enpresa nagusiei edo, hala denean, sozietateei dagozkien finantzaketa-ehunekoak ezartzeko. Ministroak proposamen hori onartuko du agindu bidez, eta agindua *Estatuko Aldizkari Ofizialean* argitaratu da.

Subjektuetako bakoitzak egin beharreko ekarpenak, betiere, erakunde likidatzaileak xede horretarako berariaz sortutako gordailu-kontu batean sartuko dira; erakunde likidatzailea arduratuko da kontua kudeatzeaz.

Erregelamendu bidez mekanismoak ezarri ahal izango dira subjektuek jarritako diru kopuruak gorantz edo beherantz erregularizatzeko eta artikuluko honetan ezarritakoa behar bezala aplikatzen dela bermatzeko. Kobratzeko eskubideak edo ordaintzeko betebeharrak aitortuko dira hala behar denean.

Zenbaki honetan aurreikusitako mekanismoa lau urtean behin gutxienez berrikusiko du Gobernuak, sektore elektrikoaren egoerari egokitzeko».

Lau. Aldatu egiten da 52. artikuluko 3. zenbakia, eta honela idatzita geratzen da:

«3. Artikulu honetako laugarren zenbakian ezarritakoa ezertan eragotzi gabe, kontsumitzaile txikientzako borondatezko prezioei edo azken baliabideko tarifei atxikita dauden kontsumitzaileei, erregelamendu bidez ezartzen diren baldintzetan, eten ahal izango zaie energia elektrikoaren hornidura, baldin eta ordaintzeko errekerimendu sinesgarria egiten zaienetik gutxienez bi hilabete igarotzen badira ordaindu gabe. Horri dagokionez, errekerimendua egiteko edozein bide erabil daiteke, baldin eta interesdunak edo beraren ordezkariak hartu izana jasota geratzen bada, eta data, izena eta errekerimenduaren edukia ere jasota geratzen badira.

Erregelamendu bidez berariaz zehazten diren kategorietako kontsumitzaile kalteberen kasuan eta kontsumitzaile txikientzako borondatezko prezioei edo azken baliabideko tarifei atxikita dauden administrazio publikoen kasuan, berriz, lehenengo errekerimendua egiten denetik lau hilabete igarotzen badira ordaindu gabe, eten ahal izango da hornidura».

Bost. 52. artikuluko 4. zenbakian j) letra gehitzen da, eta aldatu egiten da azken paragrafoa. Honela idatzita geratzen da:

«j) Erregelamendu bidez ezartzen diren moduan eta baldintzetan, kalteberatasun larria duten kontsumitzaileentzako hornidurak, kontsumitzaileok azken baliabideko tarifari atxikita badaude eta hornidura horiek direla-eta administrazio publiko eskudunetako gizarte-zerbitzuen laguntza jasotzen ari badira, euren errentarengatik gizartetik baztertuta geratzeko arriskua dutelako. Hornidura horiek euren ohiko etxebizitzan dauden pertsona fisikoetara mugatuko dira. Aurreko guztia frogatu egin beharko da kasuan kasuko administrazio publikoko gizarte-zerbitzuek egindako agiriaren bitartez.

(...)

Funtsezkotzat jotzen diren zerbitzuekin loturiko hornidurak dituzten bezeroek ordainketa berandutzen badute, enpresa banatzaile edo merkaturatzaileek, j) letran jasotako kasuan izan ezik, errekarquak aplikatu ahal izango dituzte, edo bezeroak (publikoa nahiz pribatua) ordaintzen dizkien diru kopuruak zerbitzu horien fakturen ordainketari lotu ahal izango dizkiote, nahiz eta bezeroak beste asmo batekin egin ordainketak».

Sei. 64. artikuluari bi zenbaki gehitzen zaizkio. Hona hemen:

«47. Legez edo erregelamenduz ezarritako epeetan ez ordaintzea 45.4 artikuluan definitutako gizarte-bonuaren eta zenbatekoaren banaketan esleitutako parte, baldin eta urtean egin beharreko ekarpena 5 milioi eurotik gorakoa bada.

48. Bezero kopuruari edo energia elektrikoaren hornidurari buruzko datuak faltsutzea edo ezkutatzea edota 45.4 artikuluan definitutako gizarte-bonuaren eta zenbatekoaren finantzaketarako mekanismoa aplikatze aldera Administrazioak eskatzen duen beste edozein informazio faltsutzea edo ezkutatzea».

Zazpi. 65. artikuluari hiru zenbaki gehitzen zaizkio. Hona hemen:

«37. Legez edo erregelamenduz ezarritako epeetan ez ordaintzea 45.4 artikuluan definitutako gizarte-bonuaren eta zenbatekoaren banaketan esleitutako parte, urtean egin beharreko ekarpena 500.000 eurotik gorakoa eta gehienez 5 milioi euro baldin bada.

38. Bezero kopuruari edo energia elektrikoaren hornidurari buruzko datu okerrak ematea edota 45.4 artikuluan definitutako gizarte-bonuaren eta zenbatekoaren finantzaketarako mekanismoa aplikatze aldera Administrazioak

beste edozein informazio eskatzen duenean informazio okerra ematea arau-hauslearen mesedetan.

39. Bezero kopuruari edo energia elektrikoaren hornidurari buruzko datuak edota Administrazioak eskatutako beste edozein informazio garaiz ez ematea, eta 45.4 artikuluan definitutako gizarte-bonuaren eta zenbatekoaren finantzaketa-ehunekoak zehaztu edo finkatzea eragozte atzerapen horrek».

Zortzi. 66. artikuluari lau zenbaki gehitzen zaizkio. Hona hemen:

«8. Legez edo erregelamenduz ezarritako epean ez ordaintzea 45.4 artikuluan definitutako gizarte-bonuaren eta zenbatekoaren banaketan esleitutako zenbatekoak, urtean egin beharreko ekarpena 500.000 euro edo gutxiago baldin bada.

9. Bezero kopuruari edo energia elektrikoaren hornidurari buruzko datu okerrak ematea edota 45.4 artikuluan definitutako gizarte-bonuaren eta zenbatekoaren finantzaketarako mekanismoa aplikatze aldera Administrazioak beste edozein informazio eskatzen duenean informazio okerra ematea, hori arau-hauslearen mesederako ez denean.

10. Bezero kopuruari edo energia elektrikoaren hornidurari buruzko datuak edota Administrazioak eskatutako beste edozein informazio garaiz ez ematea, atzerapen horrek ez badu eragozten 45.4 artikuluan definitutako gizarte-bonuaren eta zenbatekoaren finantzaketa-ehunekoak zehaztu edo finkatzea.

11. 45. artikulua definitzen dituen gizarte-bonuaren kostua eta zenbateko osagarria banatzeko mekanismoaren ondoriozko beste edozein betebeharrak ez betetzea, ez-betetze hori arau-hauste astuntzat edo oso astuntzat hartzen ez denean».

2. artikulua. *Kontsumitzaile kalteberak babesteko neurriak.*

Gobernuak babes-neurriak eta gardentasuna hobetzeko neurriak sustatuko ditu kontsumitzaile kalteberentzako horniduraren kontratazioan.

Halaber, administrazio publiko eskudunekin elkarlanean jardungo du Sektore Elektrikoari buruzko abenduaren 26ko 24/2013 Legearen 52.4.j) artikuluan aipatzen diren kontsumitzaileen hornidura-puntuaren erregistro administratiboa abian jartzeko, erabat errespetatuz Izaera Pertsonaleko Datuak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan xedatutakoa.

Xedapen iragankor bakarra. *Sektore Elektrikoari buruzko abenduaren 26ko 24/2013 Legearen 45. artikuluan aurreikusitako gizarte-bonuaren kostua behin-behinean finantzatzeko mekanismoa.*

1. Errege lege-dekretu hau indarrean jartzen denetik aurrera, eranskinean ageri diren banaketa-ehunekoak aplikatuko dira gizarte-bonua finantzatzeko, harik eta Sektore Elektrikoari buruzko abenduaren 26ko 24/2013 Legearen 45.4 artikuluan —errege lege-dekretu honek onartutako testuan— aurreikusita dagoen erregelamendu bidezko garapena gauzatu arte.

Sozietateetako bakoitzak egin beharreko ekarpenak likidazioen ardura duen erakundeak xede horretarako berariaz sortutako gordailu-kontu batean sartuko dira; erakunde hori arduratuko da kontua kudeatzeaz. Sozietate talde bateko kide diren sozietateen kasuan, sozietate nagusiak egin beharko du ekarpena, eta ekarpen hori taldeko sozietate merkaturatzaile guztien banakako banaketa-ehunekoaren batura izango da. Merkataritza Kodearen 42.1 artikuluan ezarritakoaren arabera zehaztuko da zein den sozietate nagusia.

Horretarako, hil bakoitzaren 15a baino lehen, erreferentziako merkaturatzaileek Merkaturaren eta Lehiaren Batzorde Nazionalari aurkeztu beharko diote gizarte-bonua erabili duten kontsumitzaileen aurreko hileko fakturazioa, aldiak eta fakturazioa xehakaturatuta, aplikatutako gizarte-bonuaren guztizko zenbatekoa eta lotutako likidazioak zehazteko.

Sozietateetako bakoitzak egin beharreko ekarpenak likidazioen ardura duen erakundeak xede horretarako berariaz sortutako gordailu-kontu batean sartuko dira; erakunde hori arduratuko da kontua kudeatzeaz.

Lehenengo xehakapen-aldia errege lege-dekretu hau indarrean jartzen den egunetik 2016ko abenduaren 31ra artekoa izango da.

2. Xedapen iragankor honetan ezarritakoari jarraituz gizarte-bonua finantzatzeko jartzen diren diru kopuruak gero gorantz edo beherantz erregularizatu ahal izango dira, eta, hala behar denean, kobratzeko eskubideak edo ordaintzeko betebeharrak aitortuko dira. Horretarako mekanismoa ezarriko da erregelamendu bidezko garapenean.

Xedapen indargabetzaile bakarra. *Arauk indargabetzea.*

Indargabeturik geratzen dira errege lege-dekretu honetan xedatutakoarekin bat ez datozen edo horren aurkakoak diren maila bereko edo beheragoko arau guztiak.

Azken xedapenetatik lehena. *Eskumen-titulua.*

Espainiako Konstituzioaren 149. artikulua 1. zenbakiko 13. eta 25. paragrafoen babesean ematen da errege lege-dekretu hau, Estatuari eskumen eskusiboa esleitzen baitiote, hurrenez hurren, jarduera ekonomikoaren plangintza orokorraren oinarriak eta koordinazioa ezartzeko eta meatzeen eta energiaren araubidearen oinarriak ezartzeko.

Azken xedapenetatik bigarrena. *Erregelamendu bidezko garapena.*

Errege lege-dekretu hau baliozkotzen denetik hiru hilabete igaro baino lehen, Gobernuak, Energia, Turismo eta Agenda Digitaleko ministroaren proposamenez, errege lege-dekretu honen 1. artikuluan xedatutakoa garatuko duen errege-dekretua onartuko du.

Azken xedapenetatik hirugarrena. *Indarrean jartzea.*

Errege lege-dekretu hau *Estatuko Aldizkari Ofizialean* argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Madriren, 2016ko abenduaren 23an.

FELIPE e.

Gobernuko presidentea,
MARIANO RAJOY BREY

ERANSKINA

Gizarte-bonuaren banaketa-ehunekoak

Sozietatea	Esleitutako banaketa-ehunekoak
IBERDROLA CLIENTES SaU.	21,959937
ENDESA ENERGÍA XXI S.L.U.	20,699746
ENDESA ENERGÍA Sa.	16,967865
IBERDROLA COMERCIALIZACIÓN DE ÚLTIMO RECURSO SaU.	13,538991
GAS NATURAL SUR SDG Sa.	8,191139
GAS NATURAL SERVICIOS SDG Sa.	7,442031
EDP ENERGÍA SaU.	2,286815
CIDE HCENERGIA.	1,430867
VIESGO ENERGIA S.L.	1,359026
VIESGO COMERCIALIZADORA DE REFERENCIA S.L.	0,812955
EDP COMERCIALIZADORA DE ÚLTIMO RECURSO Sa.	0,809596
FENIE ENERGÍA Sa.	0,750418
EDP COMERCIALIZADORA SaU.	0,454460
COMERCIALIZADORA ELÉCTRICA DE CÁDIZ Sa.	0,217154
GAS NATURAL COMERCIALIZADORA Sa.	0,210083
CLIDOM ENERGY S.L.	0,195203
AUDAX ENERGÍA Sa.	0,177346
FACTOR ENERGÍA Sa.	0,146251
SOM ENERGÍA S.C.C.L.	0,109256
GASELEC DIVERSIFICACIÓN S.L.	0,107484
NEXUS ENERGÍA Sa.	0,103225
ENÉRGYA VM Gestión de Energía S.L.U.	0,102548
EMPRESA DE ALUMBRADO ELÉCTRICO DE CEUTA Sa.	0,100496
WATIUM S.L.	0,095760
BASSOLS ENERGÍA COMERCIAL S.L.	0,071642
ALDRO ENERGIA Y SOLUCIONES S.L.U.	0,058406
ELECTRICA DEL EBRO Sa.	0,058383
ELECTRA ENERGÍA SaU.	0,053284
AGUAS DE BARBASTRO ENERGÍA S.L.	0,052063
ESTABANELL Y PAHISA MERCATOR Sa.	0,048309
COOPERATIVA ELÉCTRICA BENÉFICA SAN FRANCISCO DE ASÍS COOP. V. ...	0,048139
AGRI-ENERGÍA Sa.	0,045690
UNIELÉCTRICA ENERGÍA S.L.	0,043576
ELECTRA CALDENSE ENERGÍA Sa.	0,042482
HIDROELÉCTRICA DEL VALIRA S.L.	0,041349
SOCIEDAD ELECTRICISTA DE TUY Sa.	0,039194
ELÉCTRICA SEROSENSE S.L.	0,037993
ELECTRA DE ALTO MIÑO COMERCIALIZADORA DE ENERGÍA S.L.U.	0,035500
INTEGRACIÓN EUROPEA DE ENERGÍA SaU.	0,034691
COMPAÑÍA ESCANDINAVA DE ELECTRICIDAD EN ESPAÑA S.L.	0,033543
ADURIZ ENERGÍA S.L.U.	0,032922
ELÉCTRICA SOLLERENSE Sa.	0,031908
GESTERNOVA Sa.	0,027394
ALCANZIA ENERGÍA S.L.	0,026968
HIDROELÉCTRICA EL CARMEN ENERGÍA S.L.	0,025315
ELECTRA DEL CARDENER ENERGÍA Sa.	0,023514
ELÉCTRICA DE CALLOSA DE SEGURA C.V.	0,022933
AURA ENERGÍA S.L.	0,021985

Sozietatea	Esleitutako banaketa-ehunekoa
SUMINISTROS ESPECIALES ALGINETENSES COOP. V.	0,020887
HIDROELÉCTRICA DE SILLEDA S.L.	0,020427
COOPERATIVA ELÉCTRICA-BENÉFICA ALBATERENSE COOP. V.	0,019290
HIDROELÉCTRICA LUMYMEY S.L.	0,017586
COMERCIALIZADORA LERSA S.L.	0,015906
ELECTRA NORTE ENERGÍA Sa	0,015501
GOIENER S. COOP.	0,015308
ELECTRACOMERCIAL CENTELLES S.L.	0,014738
ENERCOLUZ ENERGÍA S.L.	0,014653
CARVISA ENERGÍA S.L.	0,014606
PEPEENERGY S.L.	0,014454
ELECTRA AVELLANA COMERCIAL S.L.	0,014189
NABALIA ENERGÍA 2000 Sa	0,012738
MOSCOSO ENERGÍA S.L.	0,012463
LA UNIÓN ELECTRO INDUSTRIAL S.L. «UNIPERSONAL»	0,012189
MADRILEÑA SUMINISTRO DE GAS S.L.	0,011878
COOPERATIVA ELÉCTRICA BENÉFICA CATRALENSE COOP. V.	0,011777
TELEFONICA SOLUCIONES DE INFORMÁTICA Y COMUNICACIONES DE ESPAÑA SaU.	0,011249
ELÉCTRICA DE GUADASSUAR COOP. V.	0,010804
ADS ENERGY 8.0 S.L.	0,010402
ELÉCTRICA VAQUER ENERGIA Sa	0,010399
ENERGÍAS DE BENASQUE S.L.	0,010362
GODAY ENERGÍA S.L.	0,010149
AVANZALIA ENERGÍA COMERCIALIZADORA Sa	0,009880
COMERCIALIZADORA RIOJANA DE ENERGÍA S.L.	0,009763
GRUPO ENERGIALICIA S.L.	0,009761
ZELTRIA ENERGÍA S.L.	0,009661
A-DOS ENERGÍA S.L.	0,009369
RESPIRA ENERGÍA S.L.	0,009362
GALP ENERGÍA ESPAÑA SaU.	0,009066
ELECTRICA SERRANÍA DE RONDA ENERGÍA S.L.	0,008928
AXPO IBERIA S.L.	0,008881
SOLELEC IBÉRICA S.L.	0,008880
COOPERATIVA ELÉCTRICA DE CASTELLAR S.C.V.	0,008843
FOX ENERGÍA S.L.	0,008347
ELECTRA CUNTIENSE S.L.U.	0,008245
ON DEMAND FACILITIES S.L.	0,008122
COMPAÑÍA DE ELECTRIFICACIÓN S.L.	0,008099
AGENTE DEL MERCADO ELECTRICO Sa	0,008025
MULTIENERGÍA VERDE S.L.	0,007848
ELÉCTRICA DEL POZO S. COOP. MAD.	0,007804
CHC COMERCIALIZADOR DE REFERENCIA S.L.U.	0,007795
ELÉCTRICA NTRA. SRA. DE GRACIA SDAD. COOP. VALENCIANA	0,007758
ELÉCTRICA DE MELIANA S.C.V.	0,007703
ACCIONA GREEN ENERGY	0,007234
LABOIL ENERGIA S.L.	0,007077
INER ENERGIA CASTILLA LA MANCHA S.L.	0,006796
IBEROELECTRA 3000 S.L.	0,006788
ENERXIA GALEGA MAIS S.L.	0,006579
EMPRESA MUNICIPAL DE DISTRIBUCION DE ENERGIA ELECTRICA DE ALMENAR S.L.	0,006317

Sozietatea	Esleitutako banaketa-ehunekoa
ELÉCTRICA DE GUIXES ENERGÍA S.L.	0,006106
SUNAIR ONE ENERGY S.L.	0,006086
GLOBAL BIOSFERA PROTEC S.L.	0,005903
ESTRATEGIAS ELÉCTRICAS INTEGRALES Sa	0,005864
ELÉCTRICA MUNICIPAL DE SANTA COLOMA DE QUERALT S.L.	0,005755
FLUIDO ELÉCTRICO MUSEROS S.C.V.	0,005550
ELÉCTRICA POPULAR S. COOP. MAD.	0,005435
ENERGÍA COLECTIVA S.L.	0,005211
ELÉCTRICA DE VINALES S.L.U.	0,005209
FLUID ELECTRIC CAMPRODON II S.L.	0,004731
INSERIMOS ENERGÍA S.L.	0,004136
ENERGÍA DLR COMERCIALIZADORA S.L.	0,004093
DAIMUZ ENERGÍA S.L.	0,004004
ARACÁN ENERGÍA S.L.	0,003853
ENELUZ 2025 S.L.	0,003743
EMPRESA MUNICIPAL DE ENERGÍA ELÉCTRICA TORRES DE SEGRE S.L.	0,003734
EVERGREEN ELÉCTRICA S.L.	0,003580
NOBE SOLUCIONES Y ENERGÍA S.L.	0,003381
DISTRIBUIDORA ELÉCTRICA D'ALBATERREC S.L.	0,003355
ELÉCTRICAS COLLADO BLANCO S.L.	0,003333
EMPRESA DE ALUMBRADO ELÉCTRICO DE CEUTA COM. DE REFERENCIA SaU.	0,003277
PETRONIEVES ENERGIA 1 S.L.	0,003263
ATLAS ENERGIA COMERCIAL S.L.	0,003242
CONSISA, COMUNICACIÓN, MARKETING Y SERVICIOS S.L.	0,003183
ELECTRO SALLEN DE GÁLLEGO S.L.	0,003163
OLE GREEN ENERGY S.L.U.	0,003156
AURORA ENERGY SUPPLI S.L.	0,003006
SYDER COMERCIALIZADORA VERDE S.L.	0,002995
ELECTRODISTRIBUIDORA DE FUERZA Y ALUMBRADO CASABLANCA S. COOP. V.	0,002867
ADELFA ENERGÍA S.L.	0,002842
GAOLANIA SERVICIOS S.L.	0,002826
SERVICIOS URBANOS DE CERLER Sa	0,002799
INDEXO ENERGÍA S.L.	0,002761
ELURENERGÍA VERDE S.L.	0,002758
ELÉCTRICA DE SOT DE CHERA S. COOP. V.	0,002589
ELÉCTRICA DE CHERA S.C.V.	0,002574
ELÉCTRICAS LA ENGUERINA S.L.U.	0,002570
INSIGNIA ENERGÍA S.L.	0,002532
DREUE ELECTRIC S.L.	0,002396
ELÉCTRICA ANTONIO MADRID S.L.	0,002348
CEPSA GAS Y ELECTRICIDAD Sa	0,002325
NINOBE SERVICIOS ENERGÉTICOS S.L.	0,002317
ELÉCTRICA ALGIMIA DE ALFARA S. COOP. V.	0,002308
ENERGÍAS DE LA VILLA DE CAMPO S.L.U.	0,002290
CORPORACIÓN ALIMENTARIA GUISSONA Sa	0,002218
ELÉCTRICA NURIEL	0,002104
ENARA GESTIÓN Y MEDIACIÓN S.L.	0,002089
IBERELÉCTRICA COMERCIALIZADORA S.L.	0,002070
WATIO WHOLESALE S.L.	0,002000
ELÉCTRICA ALBATERENSE S.L.	0,001959

Sozietatea	Esleitutako banaketa-ehunekoa
AVALIA ENERGÍA.	0,001887
COMPAÑÍA LUMISA ENERGÍAS S.L.	0,001803
ANOTHER ENERGY OPTION S.L.	0,001743
ELÉCTRICA SALAS DE PALLARS S.L.	0,001525
ENERGÍAS DE PANTICOSA S.L.	0,001519
ENERGY BY COGEN S.L.	0,001499
ELÉCTRICAS HIDROBESORA S.L.	0,001488
CYE ENERGÍA S.L.	0,001467
CATGAS ENERGÍA Sa.	0,001388
PREMIUM NUEVA ENERGÍA S.L.	0,001334
ENERPLUS ENERGÍA Sa	0,001302
AHORRO ENERGÍA HOGAR INVESTMENTS S.L.	0,001230
ENERGÍA NARANJA, S.L.	0,001147
ELÉCTRICA SUDANELL S.L.	0,001089
SAMPOL INGENIERÍA Y OBRAS Sa.	0,001084
ENERGÍAS DEL ZINQUETA S.L.	0,001075
FOENER COMERCIALIZACIÓN S.L.U.	0,001064
TALARN DISTRIBUCIO MUNICIPAL ELECTRICA DE LLAVORSI S.L.	0,001009
ELYGAS POWER S.L.	0,000992
ENERGY STROM XXI S.L.	0,000989
SWAP ENERGÍA Sa.	0,000989
STAGIONI ENERGÍA RENOVABLES S.L.	0,000971
ELEVA 2 COMERCIALIZADORA S.L.	0,000961
DISTRIBUCIÓN ELÉCTRICA CARIDAD E ILDEFONSO S.L.	0,000924
LLUM D'AÍN	0,000893
FLIP ENERGIA S.L.	0,000885
ENGIE ESPAÑA S.L.U.	0,000882
ECOEQ ENERGÉTICA S.L.	0,000879
GESTINER INGENIEROS S.L.	0,000874
EMPRESA MUNICIPAL DE DISTRIBUCIÓ D'ENERGIA ELÉCTRICA DE PONTS	0,000865
NEXUS RENOVABLES S.L.	0,000840
EPRESA ENERGÍA SaU.	0,000791
DISTRIBUIDORA ELÉCTRICA DE MONTOLIU S.L.	0,000788
ELÉCTRICA DE MONTSEC S.L.	0,000705
ENEL GREEN POWER ESPAÑA S.L.	0,000690
MY ENERGÍA ONER S.L.	0,000663
SERVIGAS S. XXI Sa.	0,000654
LONJAS TECNOLOGÍA Sa	0,000649
WIND TO MARKET Sa.	0,000645
SUNAIR ONE HOME S.L.	0,000622
COMERCIALIZADORA ELÉCTRICA DEL SURESTE S.L.	0,000601
SUMINISTRADORA ELÉCTRICA VIENTOS ALISIOS DE LANZAROTE S.L.	0,000573
COMERCIAL Y ASESORA DE ELECTRICIDAD S.L.	0,000564
GIGABUSINESS S.L.	0,000546
COOPERATIVA VALENCIANA ELECTRODIST. DE FUERZA Y ALUMBRADO SERRALLO S. COOP. V.	0,000524
AQUÍ ENERGÍA S.L.	0,000510
THE YELLOW ENERGY S.L.	0,000502
APELES ELECTRICIDAD S.L.	0,000495
INTEGRACIÓN EUROPEA DE ENERGÍA NORTE S.L.	0,000441
CEMOI ELECTRICITE S.L.	0,000411

Sozietatea	Esleitutako banaketa-ehunekoa
FORTIA ENERGÍA S.L.	0,000396
ENERGÍA OPERATIVA S.L.	0,000396
ELÉCTRICA CATRALENSE S.L.	0,000387
VOLTICO ENERGÍA S.L.	0,000371
GEO ALTERNATIVA S.L.	0,000348
NOSA ENERXIA SOCIEDADE COOP. GALEGA.	0,000333
RENEWABLE VENTURES S.L.	0,000330
HORECA ENERGÍA S.L.	0,000328
ENERGÍA EUROPEAS DE COMERCIALIZACIÓN S.L.	0,000328
TRADE UNIVERSAL ENERGY Sa.	0,000321
PROT ENERGÍA COMERCIALIZACIÓN S.L.	0,000316
ENERGYSAVE PROJECTS S.L.	0,000297
ABOUT WHITE S.L.	0,000297
GAS NATURAL SDG Sa	0,000281
REYSE ENEGÍA S.L.	0,000265
ENERGY TRADER SOLUTIONS S.L.	0,000250
ELEGRAND ENERGÍA S.L.	0,000246
IM3 ENERGÍA S.L.	0,000237
ELECNOVA SIGLO XXI S.L.	0,000237
INICIATIVA E. NOVA S.L.	0,000220
EXPORT INNOVATION GROUP S.L.	0,000215
ACCIÓN ENERGÍA COMERCIALIZADORA S.L.	0,000206
ASAL DE ENERGÍA S.L.	0,000190
CATENERIBAS S.L.	0,000183
ENERGIKA ENERGÍA S.L.	0,000176
ELÉCTRICA DIRECTA ENERGÍA S.L.	0,000146
FORTULUZ S.L.U.	0,000146
HEFAMECOM SaU.	0,000142
NUEVA COMERCIALIZADORA ESPAÑOLA S.L.	0,000138
RONDA OESTE ENERGÍA S.L.	0,000135
FUSIONA COMERCIALIZADORA Sa	0,000131
MI ELÉCTRICA S.L.	0,000115
EMASP S. COOP.	0,000112
DRK ENERGY S.L.	0,000107
INTEGRACIÓN EUROPEA DE ENERGÍA SUR S.L.	0,000104
ENERGEA SaVING ENERGY S.L.	0,000100
CORPOLUX S.L.	0,000097
ADEINNOVA ENERGÍA S.L.U.	0,000096
LUX FORUM S.L.U.	0,000080
COMERCIALIZADORA DE ENERGÍA BENUZA Y BAÑESA S.L.	0,000066
ROFEICA ENERGÍA Sa	0,000058
GESTIONA ENERGÍA, COMERCIALIZADORA ENERGÉTICA S.L.	0,000053
ENÉRGYA VM Generación S.L.U.	0,000048
VILLAR MIR ENERGÍA S.L.	0,000038
GEOATLANter S.L.	0,000036
LUVON ENERGÍA S.L.	0,000033
SHELL ESPAÑA Sa	0,000030
NEMON INTELLIGENCE IN BUSINESS S.L.	0,000029
MUNICIPAL DE SERVICIOS VILLAHERMOSANA S.L.	0,000027
JORGE ENERGY S.L.	0,000021
LUBALOO S.L.	0,000021
ALDEFE COMERCIALIZADORA DE ENERGÍA S.L.U.	0,000021

Sozietatea	Esleitutako banaketa-ehunekoa
GNERA ENERGÍA Y TECNOLOGÍA S.L.	0,000019
ENERGÍA LIBRE COMERCIALIZADORA S.L.	0,000018
ELECTRA CUNTIENSE COMERCIALIZADORA S.L.U.	0,000017
TERAMELCOR S.L.	0,000014
THE ENERGY HOUSE GROUP S.L.	0,000014
UNIC GLOBAL-LOGISTICS S.L.	0,000014
SWITCH ENERGY S.L.	0,000010
ENÉRGYA VM ENERGÍAS ESPECIALES S.L.U.	0,000007
PULSAR SERVICIOS ENERGÉTICOS S.L.	0,000005
ALPAPAT S.L.U.	0,000003
ALPIQ ENERGÍA ESPAÑA SaU.	0,000003
NAVARRO GENERACIÓN Sa	0,000003
GRUPO ENERGÉTICO ASECOR S.L.	0,000003
TECNOS INGENIEROS OBRA CIVIL, HIDRÁULICA E INSTALACIONES S.L.L. .	0,000003
ECOEQ ALMERIA S.L.	0,000003
GUZTIRA	100,000000